

A T Z O K O
Andoain


eta andoaindarrak

2. zbk.

1999ko otsailaren 28a

Eskola (eta 2)

*eta
ando
ainda
rrak*



registrado Laboratorios Fotográficos E. UTRILLA - Los Centelles, 28 - Teléfono 52183

COLEGIO LA SALLE

.III. de las Escuelas Cristianas

ZER ETA NOLA IKASTEN OTE ZUTEN ESKOLETAN?

Gaur egungo neskato-mutikoek ezagutzen duten eskolak parekotasun gutxi, oso gutxi, ditu orain dela 60 edo 70 bat urte andoaindarrek ezagutu zituztenekin. Sistema pedagogikoa erabat zen desberdina; ikasten zena murriztagoa zen eta disziplina askoz ere gogorragoa. Ez ziren horregatik eskola kaxkarrak. Guk mahaiaren bueltan bildu ditugun guztiak bat etorri dira oinarritzko ikasgaiak ondo ikasten zirela azpimarratzerakoan. Zenbait alderdiri begiratuta, gainera, duaririk ez dute, oraingoan aldean, askoz hobeak zirela orduko eskolak eta han ikasitakoak; 'Conducta y urba-

nidad' eta 'caligrafia' ikasgaiak jarri dituzte horren adibidetzat.

Horiei guztiei buruzko jakingarri eta oroitzapenak aurkituko dituzu datozen orrietan. Ikasgaiari ezezik, ikasgelen itxura fisikoa bera nolakoa zen, ikasteko zer nolako koaderno eta liburuak erabiltzen ziren ere bildu ditugu. Ez ditugu ahaztu, ez, eskoletan egiten ziren gaiztakeria ohikoenak zeintzu ziren ezta irakasleak amorraraziz gero bete behar izaten zituzten zigorrek ere. Segidan dituzu guzti-guztiak:

IKASGELAK

Eskola zenbaitetan –Concha Arretxerenean, esate baterako– mahaietarako dirurik ez, eta aulki batzuetan eserita moldatzen ziren haurrak eskolak hartzeko. Gainerantzekoetan, ordea, pupitretan eseri ohi ziren neska-mutikoak eskolan. Euren sila eta guzti izaten zuten egurrezko mahai haiek, eta gaikaldean, berriz, luma eta tinta potoa uzteko zulotoak. Mahai haietan zintzo eseritzen ziren ikasleak, oholtza txiki batean aurrez aurre izaten zuten maisu edo maistrari begira.

Paretetan, berriz, munduko mapa geografikoak edukitzen zituzten zint-

zilika. Batzuk Europako ibaiak erakusten zituztenak, besteak Espainiako mendikateen berri ematen zutenak...; Bai gerra aurrean eta baita gerra ostean apaingarri horiek izaten ziren herriko ikastetxeetan. Gure gertuko historia erabat markatu zuen gerraldiaren ondoren, ordea, eskoletako "dekorazioan" izan zen aldaketa nagusi-nagusi bat: mapa mundiei Franco eta Mola gene-

ralaren argazkiak gehitu zitzaizkien. Espainiako garaiko agintarien irudiek eskolako pareta nagusian jarri ohi ziren, propio hantxe, gurutze santuaren alboetara. "Gerra bukatuta eskolara itzuli ginenean horixe topatu genuen nobedadea; horixe: Franco eta Molaren argazkiak, biak Pilareko amabirjina eskuetan hartua zutela", dio Roke Ansa.



Roke Ansa

"Gerra bukatuta eskolara itzuli ginenean horixe topatu genuen nobedadea; horixe: Franco eta Molaren argazkiak, biak Pilareko amabirjina eskuetan hartua zutela".



Basteroko Herriko Eskoletako ikasgela bat. EMILIO TRUCHUELO

PIZARRILLOA, BI LERROKO KOADERNOAK, LUMAK...

Concha Arretxeren eskolan ibili zirenek, ospitaleko ikasleek bezalaxe, arbela txikia izaten zuten ariketak-eta egiteko; 'pizarrilloa' esaten zitzaion. Han egiten zituzten matematikako eragiketak edota gramatika ariketak. "Haiek borrazteko oihaltxo bat izaten genuen eta gero sartzen genituen, arbela eta trapua, amak egindako poltsatxo batean", gogoan du Joxepa Ormaetxea.

La Sallen ibili zirenek, ez zuten halakorik erabili. Joxe Mari Olazabalek, Iñaki Arregik, Imanol Egibarrek, Miguel Amasek eta Roke



Joxepa Ormaetxea

"Pizarrilloa borrazteko oihaltxo bat izaten genuen eta gero sartzen genituen, arbela eta trapua, amak egindako poltsatxo batean".


Ansak gogoratzen dute nolako koadernoak zituzten: "Bat milimetratua, eta bestea bi lerrokoa kaligrafia egiteko", kontatu digu Imanolek. "Kaligrafia egiteko haiek zituzten letra puntudunak eta gero haien gainetik pasa behar izaten zen lumaz, garai hartan boligrafarik ez baitzen".

Luma hura tinta potoan busti eta harekin egin behar izaten ziren lanak. Askorentzat tinta pote hura lanerako ezezik, gaiztakerietarako ere baliagarria izaten zen, Joxe Mari Olazabalek gogoratu digunez. "Euliarena denek egiten genuen. Hartzen genuen 'zas!' eulia airean eta sartzen genuen tinteroan. Gero euliak, beltz-beltz eginda, dena tintaz zikintzen zuen".



Joxemari Olazabal

"Euliarena denek egiten genuen. Hartzen genuen 'zas!' eulia airean eta sartzen genuen tinteroan. Gero euliak, beltz-beltz eginda, dena tintaz zikintzen zuen".



Iñaki Arregik etxean gordeak dituen garai hartako lumak

SISTEMA PEDAGOGIKOA

Gela bakoitzean urte ezberdinetako ikasleak egoten ziren, ikastetxe bakoitzean, gehienez, hiruzpalau ikasgela izaten baitziren: Umeak, gaztetxoak eta koxkortuxegoentzat. Ez zen, beraz, orain bezalako ikasturterik. Miguel Amasek gogoratzen duenez, pixkanaka-pixkanaka ikasten zen, kurtsorik gaintitu behar gabe: "Egun batean hau ikasten zen,

hurrengoan gehixeago, hurrengoan gehixeago... eta horrela".

Garai hartan Andoainean ziren eskolatik eskolara, nolana ere, irakasteko sistema diferentea zen. Herriko Eskoletan, esate baterako, gehientsuena "de carrerilla" ikasten zutela gogoratu du Maria Esther Arrietak: Europako ibaiak, iparraldekotik hasi eta Espainiara bitarteko guztiak, errenkada-errenkadan botatzen zituzten ikasleek -orain ere horretarako gai dira, bilera egin genuean ondo erakutsi zutenez-. Preposizioak ere berdin: "a, ante, bajo, cabe, con..."

Notre Dameko eskolan, ordea, horrelako sistema-



Imanol Egibar

"Azkenean, urtearen bukaeran, festa handi bat egiten zen eta nota onenak izan zituzten ikasleei diplomak ematen zitzaizkien. Premioa ere izaten zen, 'Zara' markako regaliz puska bat".

rik ez zuten erakusten mojek. "Notre Dameko mojak Andoaindik joan zirenean nik egin nuen urtebete Herriko Eskoletan Doña Juanitak ikastola ireki zuen arte, eta batetik bestera nabaritu nuen izugarritzko alde alde horretatik" dio Loren Navarrok. "Mojetan", gaineratu du, "beste sistema bat zuten erakusteko. Herriko Eskolara joan eta denak hasten zirenean, 'El Rhin que pasa por Alema-



La Salleko lau ikasle ikasturte bukaeran diplomak jasotzen.



Miguel Amas

"Boletinetan lehenengo agertzen zen 'asistencia'; gero 'conducta y urbanidad'; hirugarrena, 'historia, sagrada y de España'; gero 'geografía'; matemáticas...

nia, el Sena que pasa por Paris, el Danubio..." horrela, ni gelditzen nintzen isil-isilik. Horrelakorik ez nekien nik. Nik beste modu batean ikasten nituen gauzak".

Ikasgaiak ondo ikasi ote ziren jakiteko, orduan ere egiten ziren azterketak, eta notak, larunbatero-

larunbatero ematen zizkieten ikasleei, haiek etxera eramán eta gurasoek sinatu ondoren itzul zituzten hurrengo astelehen goizean. Miguel Amasek oso ondo gogoratzen ditu nola ziren 'boletín' haiek: "Lehenengo, 'asistencia'; gero 'conducta y urbanidad'; hirugarrena, 'historia, sagrada y de España'; gero 'geografía'; matemáticas...

"Azkenean, urtearen bukaeran", esan du Imanol Egibarrek, "festa handi bat egiten zen eskolan eta nota onenak izan zituzten ikasleei diplomak ematen zitzaizkien. Premia ere izaten zen; gogoan dut: 'Zara' markako regaliz puska bat".

MES DE NOVIEMBRE

CONCEPTOS	NOTA	SEMANAS				OBSERVACIONES
		1ª	2ª	3ª	4ª	
Conducta y Urbanidad...	10	10	10	10	10	Muy Sr. mtr.
Asistencia y Puntualidad Religiosa y Lecciones...	10	10	10	10	10	
Trabajos del Colegio...	10	9	9	8	9	
Trabajos de Casa...	10	8	10	9	9	
Total de puntos	50	47	49	46	48	
Puesto...		11º	12º	6º	11º	
Subre...		10	10	10	10	
Faltas de asistencia...						
Retrasos...						
Asistencia al Circulo...						

Nota boletina

DISZIPLINA ETA ZIGORRAK

Gaurkoaren aldean, dudarik ez, orduko eskoletan askoz ere disziplina zorrotzagoa izaten zen. Maisuaren esanak zintzo bete behar ziren, eta hala egin ezean zigorrak bete beste erremediorik ez zen izaten. Mahaiaren bueltan bildu dugun koadrila honetako batzuren batzuk ondo gogoan dute euren maisu-maistrek koskorrekoa buruan edo makilarekin behatz puntak jotzea izaten zutela zigor biderik normalena.

"Neri behin maistrak jo zidan handia baina nik ere itzuli nion", esan digu Miren Zarragak. "Gogoratuko duzue nola Etxeberrietan bazen Señorita Mercedes izeneko maistra, Genaro Txokolonekoaren lehengusua zena (oraindik bizi da). Ba behin, nere lagun batek, estufako tximinira bota zuen ura eta han atera zen kea ikaragarria. Maistra etorri zen esanez '¿Quién ha sido?' eta egin zuenak erantzun zion 'Miren Zarraga'. Nik ez nuen ezer egin, aulkian eserita nengoen formal-formal baina etorri zitzaidan eta 'da!' eman zidan zaplasteko bat. Ni altxa nintzen eta 'di-da!' eman nion ba berari. Etxera bidali ninduen airean! Etxera ailegatu amari zer gertatu zen kontaktu eta hark ere 'zas!' maistra jo nuelako. Aita etorri eta hark ere zaplastekoa!; ondo ikasi nuen irakaslea gehiago ez nuela jo behar, sekulako bekatua egin nuela".



Miren Zarraga

"Neri behin maistrak jo zidan handia baina nik ere itzuli nion. Baina ondo ikasi nuen irakaslea gehiago ez nuela jo behar, sekulako bekatua egin nuela".

"Gaur egungoarekin alde ederra!", dio Imanol Egibarrek. "Orduan eskolan zaplastekoa ematen bazizuten hobe etxean ez ezer esatea, bestela han ere jasotzen baitzenuen ederra..." Joxepa Ormaetxeak gogoratu duenez, "nahiz eta pena eman" garai hartan sekula ez ziren ateratzen gurasoak umeen alde. Beti irakasleak arrazoi.

Bazen beste zigor bat kasik eskola guzti-guztietan praktikan jartzen zena: Bi liburuna eskuetan hartuta paretari belauniko begira jartzea. Horrelaxe jartzen zituzten irakasleek garai hartako ikasleak gaiztakeriak egiteagatik erabat amorrarazten zituztenean.

Beste kastigo bat oso normala izaten zen kopiatzen agintzea. Maisu edo maistrak agindutako lezioa jakin ezean, lezio hori guztia bitan, hirtan edo lautuan kopiatu behar izaten zen. Eskolan gaizki portatuz gero, berriz, ehun aldiz ere idatzi behar izaten zen "tengo que portarme bien en clase" zioen esaldia. "Trukoak ere asmatzen genituen ordea", zehaztu du Joxemari Olazabalek. "Bi boligrafo batera hartu eta lan erdia egiten genuen".



La Salle ikastetxeko mutilen ikastalde bat.

BALEAK

Jarrera ona zutenek baleak irabazten zituzten saritan. Bezperetara joan zirelako, eskolan txintxo aritu zirelako...; baleak ematen zituzten. Eta zer arraiotarako balio zuten bale haiek? Ba gauza askotarako: Irakasleak jarritako zigorrak kitatzeko, trukean goxoki edo regaliz gogor puska bat lortzeko...; baita zinea ikustera joan ahal izateko ere! La Salleko fraileekin zinea ikusi nahi izaten zuenak, bezperetara joan eta baleak lortzea beste erremediorik ez zuen ba izaten...

Inprentako kartulina puskatxo haiek kasik diruaren balio bera izaten zuten, beraz, eskola-umeentzat.



Itxura hau zuten baleek, gutxi gorabehera.

Roke Ansak gogoratzen duenez, dirua bezala, baziren, batekoak, bikoak eta bost eta hamarrekokoak ere.

Negoziaroko balioa zuten txartelak zirenez haiek, baleen merkatu beltz txikia ere sortzen zen inguruan. Horretaz ari garela Imanol

Egibarri etorri zaio gogora anekdota polita. (Porsiakaso izenik ez du eman, nahiz eta esan irakurtzen duenean protagonistak berak ondo jakingo duela berataz ari dela). "La Sallen, ni eskolan nenbilela, arkupe-tako etxe horretan, zen direktorea 'Kuxkullu' esaten genion bat. Orduan ikasi behar genituen dotrina eta bes-telako lezioak memoriz. Eta aginduta bezala, hurrengo egunean ez bazenekizkien, zigorra jartzen zuten: bihar edo etzirako dena bi edo hiru aldiz kopiatzera. Baina zuk baleak bazenituen horiek irakasleari eman eta zigorra kitatua geratzen zen. Ba harek direktoreak zigorra jarri ziola-kopiak eskatzen zizkionean, 'ta!' balea ateratzen zuen. Hurrengo egunean, direktoreak 'a ver, para hoy tenías que haber copiado tres veces...' eta 'ta!' balea berriz ere..., direktorea,



Imanol Egibar

"Orduan ikasi behar genituen lezioak memoriz. Eta aginduta bezala, hurrengo egunean ez bazenekizkien, zigorra jartzen zuten: bihar edo etzirako dena bi edo hiru aldiz kopiatzera. Baina zuk baleak bazenituen horiek irakasleari eman eta zigorra kitatua geratzen zen".

amorratuta, bere artean 'ez dek posible, honek nondik ateratzen dizkik ba baleak!' esanez. Ba al dakizue zer egiten zuen harek? Garai hartan ogirik-eta bat ere ez zenez, bera goizean joaten zen eskolara etxean egindako taloak kolkoan hartuta. Pasadizuan, 'aiba taloa, tori balea; tori taloa, ekarri balea' ibiltzen zen... Hura negoziantea, hura...

IKASGAIK

Gramatika: Arduraz hartzen zen orduan gazteleraz hutsik egin gabe idaztea; gramatika arauak guztiak ikasten ziren eta ortografia zorrotz zaintzen zen. Loren Navarrok gogoratu duenez, bera Notre Dameko mojekin ibili zen garain, egunero egiten zuten 'dictado'-a. "Nik uste dut nire ortografia akats guztiak han utzi nituela", zehaztu du.

"Nik ere La Sallen", gaineratu dio Imanol Egibarrek, "'v' eta 'b' eta 'h' non jarri eta horiek denak dominatu nituen, eta gaurko eguneko umeek ez




Loren Navarro

"Egunero egiten genuen 'dictado'. Nik uste dut nire ortografia akats guztiak han utzi nituela".

dakizkite ondo. Gainera, garai hartan ortografiako falta bat egin baino lehen hartzen genuen hiztegia, ondo begiratu, edo galdetu...; oraingoei, berriz, batere ez zaie inportik!

Ortografia ezezik, gramatikan beste arlo batzuk ere jorratzen ziren, esate baterako, 'análisis gramatical' izenekoak. "Sujeto, predicado... Esaldi bat jarri eta horiek guztiak bereizten ikasten genuen", jakinarazi du Joxemari Olazabalek. "Gainera", dio Loren Navarrok, "aditzak ere ikasten genituen denak: regulares, irregulares..."

Kaligrafia: Bixente Olanok dienez, garrantzi handienetariko bat zuen ikasgaia zen kaligrafia. "Ikusi besterik ez dago garai hartako karteroek zuten letra, guk gehienok daukaguna... Hartzazu oraingo medikuen errezeta edo nere seme-alaben eskutitz bat; Pszz...! Bat etorri da berarekin Joxepa Ormaetxea ere: "Orduan izugarri exigitzen zen kali-



'Bruño'-ren matematika liburua.

grafia, orain, berriz, bat ere ez!".

Denek gogoratu dute nola idazten zuten plumillaz. 'redondilla', 'letra gótica', 'alemana', 'letra picuda'...; horiek denak nola idatzi tentuz ikasten zen.

Geografia: Geografia fisikoa ikasten zuten garai hartako ikasleek: "los cabos, los golfos, los ríos...", dio Joxemari Olazabalek. Espainiakoez gain, Europako herri, hiriburu, mendi eta mendikateak ere ikasi beharra izaten zen, baita gainontzeko kontinenteetako zenbait ere.

'Historia de España' eta 'historia sagrada': Espainiako historian mugarri izandako gertakari historikoen erreposoa egiten zen historiako klasean, jakina, gerra ostean beti ikuspegi frankista batetik zuzenduta. Joxemari Olazabalen arabera, eskola haietan oinarri-oinarrizkoenak ikasten zituzten: "Anekdotak bai, horiek bagenekizkien; 'La batalla de Lepanto' eta horrelakoak... baina gerren zergatia-eta ez genuen ikasten".

Espainiako historia bezain



'Lengua española' liburuaren azala.



Bixente Olano

"Kaligrafia zen ikasgai garrantzitsuenetarikoa. Ikusi besterik ez dago garai hartako karteroek zuten letra, guk gehienok daukaguna..."

garrantzitsua edo akaso garrantzitsuagoa zen 'Historia sagrada' izeneko ikasgaia. Erlijio katolikoaren nondik-norako guzti-guztiak ondo jakin behar izaten zituzten umeek, derri-gorreetan. Horrezaz gainera, astero, herriko apaizak bixita egiten zuen ikastetxez ikastetxe erlijio eskola emateko.

Matematika eta aritmetika: Txiki-txikitan biderkatzeko tablak kantuan eta gorputzari aurrera eta atzera eraginez ikasi zituzten gehienek. Handik aurrera, eragiketak eta nola egin, bakoitzak, bere ahalmenaren arabera.

La Sallen, dena den, kurtsuok aurreratu ahala, gai horiek garrantzia berezia hartzen zuten, lanerako prestaketarako egoki-egokiak ziren eta.

Marraskia: "Lasallen erakutsi ziguten dibujoa oso ondo", dio Iñaki Arregik. "Gogoratzen naiz", zehaztu du, "nola Jose Maria Iciarrek ekartzen zizkigun makina zaharretako piezak askatu eta haiek dibujatzeko. 'A mano alzada' kopiatzen genituen. Hura ikasi genuen 'a la perfeccion'".

'Conducta y urbanidad': Ikasgai hartan ikasten zen zaharrei lagundu egin behar zitzaizela, aulkiekin soinu-

rik ez zela egin behar, emakumei bidea eman behar zitzailela.. eta antzekoak. Askotan alegia bidez erakusten zizkieten zein jarrera izan behar ez zituzten bizitzan, -Fábulas de Samaniego liburuan biltzen ziren haiek-. Miren Zarraga hasi da gogoratzen 'avaricia' hitzaren segidan esaten zutena, eta denek jarraitu diote atzetik:

A un panal de rica miel
dos mil moscas acudieron
que por golosas murieron.
Presas de patas en él
unas dentro de un pastel
enterró su golosina.
Así bien se examinan
los humanos corazones
que padecen en las prisiones
del vicio que las domina:

Behin horretan hasita, atzetik, Iñaki Arregik gogoratu du beste hau ere:

En casa de un cerrajero
entró una serpiente un día
y la insensata mordía
en una lima de acero.

Díjole la lima:
"cómo has de hacer mella en mí
si yo hago polvos el metal"

Conclusión: Quien pretende sin razón al más fuerte derribar no consigue si no dar coces contra el aguijón.

Miguel Amas: makina bat aldiz esaten diet nik eskoletako irakasleei, nire ilobei...; guk garai hartan genuenaren aldean, beraiek zero handi bat daukatela 'en conducta y urbanidad'. Orain ikusiko dituzu goialde gazte pilo bat espaloian eta zuk handik pasa nahi eta ez dizue utziko 'ni pa dios'!

LIBURUAK

Liburuak, orain ez bezala, ez zituen ikasle bakoitzak etxetik eskolara eta eskolatik etxera eramaten. Liburuak eskola bertakoak ziren. Behar zenean koltsulta egin eta han uzten ziren gero, bere lekuan.

Herriko eskoletan erabiltzen zituztenen artean zeuden, esate baterako, "La buena Juanita", 'Lecturas', gero 'Fisiología humana' eta horrelako izenak ziuzten liburu

txapal-txapal batzuk...", dio Maria Esther Arrietak.

Liburu guztiak ziren Editorial Bruñok argitaratutakoak. Denak gaztelaniazkoak, baina garai hartako eskoletan baziren liburu batzue-



Basteroko Herriko Eskoletako nesken ikastalde bat.

ren batzuk euskaraz idatziak, Roke Ansak gogoratu digunez: "Itun Zaharra eta Itun berria liburuak ere bagenituen irakurtzeko eta haiek zeuden euskaraz. Eta erlijiozko gaiak gain, aritmetikako ariketen liburu bat ere bazen euskarazkoa".

Eskolatik kanpora, Gerra aurrean Andoaingo ia etxe guztientzat baziren euskarazko beste liburu batzuk

umeei zuzendutakoak. Ezagunena, 'Xabiartxo' Ixaka Lopez Mendizabalek idatzitako liburua. "Liburu hori, 'Martin Txilibitu' eta 'Poxpolin' izeneko tebeoak etxean izaten genituen irakurtzeko", jakinarazi du Mikela Ansa. Gerra etorri eta Andoain nazionalek okupatu zutenean, baina, horietako asko eta asko sutan erre zituzten, betirako.



Mikela Ansa

"'Xabiartxo', 'Martin Txilibitu' eta 'Poxpolin' izeneko tebeoak etxean izaten genituen irakurtzeko".

HIZKUNTZA

Gerra aurretik eskoletan euskarak bazuen bere lekua. Dotrina eta lehenengo zerbakiak hizkuntza horretan ikasi zituzten gerra lehertu aurretik eskolan hasi ziren mutiko eta neskatokoskorrek. Abestiak ere, makina bat kantatzen zituzten gure hizkuntzan.

Iñaki Arregik ondo gogoan du La Salleko fraileak euskaltzaleak zirela. Horren seinaleztat du memorian gordeta geratu zaion abestia:

Bai ederra dala aberri maitea
Bere mendi, ibai eta baso bazterrak
Nekazari sendo, itxastar gogorak
Ume muxu gorri eta gazte bizkorak
Eia euskaldunak
eutsi-eutsi aberriari,

beti-betiko galdu ez dadin eta erori;
Bultz egin guztiok,
gora-gora aberri ederra, gora ta gora!

Maria Esther Arrietak ere baditu gordeak asko, gehienak Doña Juanitaren ikastolan kantatzen zirenak. Hara bat hemen, adibide gisa:

Arbola baten zañetatikan
Sortzen dira landariak
Bezela gera; Bidasoaren
Bi aldetako jendiak:
Berdiñak dira gure jatorri,
Oitura eta legiak,
Ama Euskerak magal berian
Azitako senidiak

Oialtzat hartu zagon Euskera,
Goraiztzat Bidasoa,

Ibai koxkor bat besterik ez da,
Utsa balitz itxasoa:
Elkarren urbil daude Zazpiak
Muga deitzen da Pausoa.
Zergatik izan behar ez degu
Pamili bakar osoa?

Gerra ostean panorama erabat aldatu zen. Geroztik abestiak, gehienak gazteleraz kantatzen zituztela gogoratzen du Iñaki Arregik, "erruzko kanta pila gainera: 'Viene llegando la primavera', 'Vengo de subir al monte', Bruñoren gramatikako lezioak... eta horrelakoak".

Eta jakina, abestiak ezezik euskarazko ikasgaiak desagertu egin ziren eskoletatik, gure hizkuntza kalean kasik desagertu zen bezala.

ORDUTEGIAK, JOLASORDUA...

Langileak bezala igandeak izan ezik, gainerantzeko egun guztietan joan behar izaten zen eskolara, larunbatetan ere bai. Deskantsurako tarte bakarra, ostegun arratsaldea izaten zen; orduan izaten zen jai.

Orain bezala, garai hartako umeek ere goiz eta arratsaldeko ordutegia izaten zuten. Goizeko bederatziak inguruan-edo denek batera errezatu ostean eskolan hasi, eguerdian bazkaltzeko etena egin, eta gero arratsaldez, berriz, arratsal-

de erdirarte-edo.

Errekreio edo jolasordurako tarte-txo bat ere izaten zuten. Baina askok ez jolas eta ez ezer. "Askotan amak kapaxo zahar bat emāñ eta enkārguetara bidaltzen gintuen. Eta hortxe joaten zitzaizkigun gure errekreio-ko hamar minutuak!", gogoratzen du Maria Esther Arrietak.

Eta ogitartekorik edo izaten al zen orain bezala? "Bokadilorik? bai zera! usaitu ere ez orduan...", dio Miren Zarragak.




Maria Esther Arrieta

"Askotan amak kapaxo zahar bat eman eta enkarguetara bidaltzen gintuen. Eta hortxe joaten zitzaizkigun gure errekreio-ko hamar minutuak!".

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Jolasak. Gai horrexeri buruzkoak topatuko dituztu martxoko azken igandean 'Atzoko Andoain eta Andoaindarrak' aldizkaritxoa zabalduz gero. Orain sei-zazpi hamarkada herritarrak zein jolasetan aritzen ziren gogoratuko dugu: kirrinkiloa, kinkiñak, txurru-murruka, txingoa, sokasaltoa, albiraka....

Telebista eta irratirik ez zen garai hartan, ezta eskola osteko orduetatik kanpo ingelesa, informatika edota judoko klasetara joan beharrik ere. Neska-mutikoez kalean, jolasean, ematen zuten eguna; erruzko jolas pilo zituzten denbora librean ez aspertzeko.



KUTXA fototeka

Zuk ere bildu nahi al duzu gurekin?

Andoaindarra bazara, aspaldiko kontuei buruz jardutea gustoko baduzu eta hiztuna bazara estimatuko dugu zure konpainia. Hilean behin biltzen gara kontu-kontari aritzeko. Proposamenak tentatzen bazaitu, deitu 300732 telefonora eta jarri gurekin harremanetan, ados?



Zuzenketa

Aurreko hilabeteko zenbakian hanka-sartze handi samarren bat edo beste egin genuen. Bigarren orriko argazkia Secundino Etxeberriak egin zen eta ez Etxezarretak guk sinatu bezala. Sasierrotan, berriz, Maria Jesus Altuna ibili zen irakasle, eta ez Maria Jesus Ansa. Bakoitzari berea.



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Maddi Trutxuelo. **Argazkiak:** Udal artxiboa, La Salle ikastetxeko artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.